

ODENSE: Egonaldiaren laburpena (Iñaki Bueno)

2017-2018 ikasturteko lehen lauhilekoa eman berri dut Danimarkan. Hasteko esan beharra dago esperientzia honek nire bizitzako hilabeterik honenak eman dizkidala, eta hau irakurtzen duen norbait ez badago ziur unibertsitate trukea egiteari buruz, animatu zaitez!

Abuztuaren 29an heldu nintzen Odensera, eta Urtarrilaren 31n itzuli. Tartean, gabonak etxean pasatzera etorri nintzen, baina gabon zaharra hango lagunekin pasa nuen Danimarkan. Hiria Gasteiz baino pixka bat txikiagoa da, 200 000 biztanle ingurukoa, nahiko lasaia. Hala ere, oso ohikoa da astebururo egiteko gauzak izatea, festibalak, musika, hockey partiduak, ikasleek antolatutako ekintzak... Hiria bizitzeko oso eroso.

Unibertsitatea (SDU) oso handia da, eta fakultate guztiak elkarren ondoan daude. Ostiraletan Friday Bar antolatzen dute ikasleek bertan, eguerdiko ordu bietatik gaueko hamaiketara arte irekita dagoena, eta beste inon baino garagardo merkeagoa edan daitekeena (10kr).

Gauetan ateratzeko lekuak Irish Pub, Underground, Nunchi, Boogies... Studenterhus ere badago, ikasleen taberna, eta espero genuen bezain merkea ez zen harren, ekintza asko antolatzen dira han, gehienak ESN-k antolatutakoak.

Heldu bezain pronto komenigarria da Erasmus Student Network-eko jendea/bulegoa topatzea eta bazkide txartela egitea (10 euro inguru). Bidaia eta ekintza merkeak antolatzen dituzte, baina azkar ibili bidaiekin plazak azkar bukatzen dira eta.

Unibertsitateko Accomodation Office arduratzen da bizitzeko lekua topatzeaz, epearen barruan eskatzen baduzu. Bisgard & Muller tipoek eramandako etxe batean egon nintzen ni (Renetlowsvej 59), eta lehen inpresioa onena izan ez zen harren, primerako jendea topatu nuen han eta lekua nahiko ondo egon zen azkenean. "Landlord" hauek eramandako etxeak erdialdetik gertu egon ohi ziren. Bestalde, HCO erresidentzia askoz handiagoa zen, eta unibertsitateetik oso gertu (erdialdetik hurrunago). Rasmus edonondik hurrun zegoen, baina ikasle internazional asko elkartzen dira han. Dalum izenekoa HCOren antzekoa, baina bazkaria, afaria... haiek ematen dizkizute (haien ordutegiarekin noski).

Heltzean ohartuko zarete bizikleta ezinbestekoa dela han. Laguntza modura: Facebook-eko "Cheapest Bikes in Odense" taldea bigarren eskuan erosteko edo "Brian's Bikes" web orria nahiko merke alokatzeko (85euro/lauhilekoa, tipo legala).

Nik ez ditut inoiz ahaztuko han bizitako momentu on guztiak, ezta han egindako leku askotako lagun ugariak. Dudan bazaude oraindik, nire gomendioa da lotsa etxean uztea eta ikasle bizitzan izan dezakezun esperientzia politenatariko bat bizitzera animatzea.

Iñaki Bueno

2018/03/06

